

«Euritik ihes egitea ez da gauza naturala, pertsona helduengandik jasotako portaera baizik»

Nerea Marquez eta Alex Filiatrearekin solasean



Ianire de Andres Olabarria
Arkitektoa eta Aldiri aldizkariko kidea

Bidaltze data: 2020-06-30
Onartze data: 2020-07-01

Nerea Marquez ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa da, eta erdi nomada!

Berarentzat, album ilustratu bakoitza portzelanazko pieza bat bezalakoa da, eta eskuratzen duen liburu bakoitzak bere historia eta bere lotura emozionala izateaz gain, mugitu beharrik gabe bidaiatzen jarraitzeko munduak irekitzen ditu. Zirimiria proiektuarekin, irakurleak bidaiatzera, amestera eta liburuarekin harreman intimo eta berezia eraikitzen gonbidatzeko erronka jarri zion bere buruari.

Alex Filiatreau ameslari eta esploratzaile sutsua da, eta ametsak errealitate bihurtu nahi ditu. Zerbitzu eta esperientzien diseinatzailea da, besteei irtenbideak aurkitzen laguntzeko aproposa. Etxean aterkia beti ahazten duen horietakoa da, baina, liburu honekin egin duen bezala, bustitzea gustatzen zaiola aitor du; norbera bustitzea, beste batzuk ere busti daitezten.

Biek partekatzen dute artea ikasi izana, Bilboko ahateen parkeko urmalean bainatu izana, eta jakin-min bera sortzen diete etzanda dauden behiek (89. orrialdean erantzuna). Aitortzen dute oraindik ez dutela oso argi euripean zelan bustitzen zaren gehien, oinez edo korrika eginez, baina badakite (eta oso ondo) lagun handiak direla eta asko gustatzen zaiela elkarrekin sortzea. Zirimiria ez da duo polit honen lehen ezta azken abentura ere.

Aldiri: Noiz eta nola piztu zen Zirimiria sortzeko gogo?

Nerea eta Alex: 5 urte pasa dira elkar ezagutu genuenetik, eta geroztik hainbat proiektutan elkarlanean ibili gara. Lankidetzarik handiena/garrantzitsuena Mahi-Mahi proiektua izan da, umeen esperientzia hobetzeko asmoz eskoletako jangela eta patioak berriro diseinatzeko proiektua, Askora enpresarekin egindakoa (www.mahimahibyaskora.com).

Duela hiru urte, egun euritsu batean, eskola bateko jangelaren birdiseinu-prozesuan murgilduta geundela, zerbait egiteko beharra piztu zitzaigun, haurrek euripean gozatzeko aukera izan zezaten. Egun hartan ikusi genuen euria datorrenean umeek euritik ihes egin eta babesteko ohitura dutela, eta euriaz gozatzeko aukera alferrik galdu ohi dutela. Beraz, egun horretan dena aldatu zen, eta berriro proiektu bat elkarrekin egitea zer polita izango litzatekeen pentsatzen hasi ginen.

Gu diseinatzaileak, esploratzaileak, ilustratzaileak eta sortzaileak gara.

Oso azkar erabaki genuen liburu-erreminta formatua izango zuela. Nerea album ilustratuaren maitale izanik, eta Alex nobela grafikoen irense, ezin liteke beste modu batean izan. Osagai horiek guztiak elkartu nahi genituen liburu hau sortzeko.

Eta hau guztia ezinezkoa zatekeen gure bi ko-argitaratzaileen babesik gabe: Anti Liburudenda-ko Javi Nevado eta Cuscusian*^s Ediciones-eko Lluís Sabadell-i esker.



Prozesu osoan zehar lagundu baitigute liburuen eta liburu objektuen munduan dituzten esperientzien ekarpenekin, ikuspegi kritikoa eta beti aberasgarria emanez. Eta noski, beti gu animatzen!

A: Euria hasterakoan, umeez ihes egin eta babesteko duten ohituraz jabetu zinetela diozue... nola aberasten du Zirimiria liburuak haurren esperientzia euripean?

N-A: Inoiz ez dugu oso argi izan «liburu» edo «liburu-erreminta» deitu, funtzio oso zehatza duen objektu bat delako. Bideratzailea da, eta baita euriaren konplize eta aliatua ere. Haurrei euripean izango duten esperientzian laguntzen die eta esperimintatzera bultzatzen ditu, harreman berria sortuz. Liburuarekin bilatzen duguna da euria hasten duenean, haur bakoitzak ihes egin beharrean, jolasteko eta gozatzeko aukera edertzat hartzea. Euritik ihes egitea ez da gauza naturala, pertsona helduengandik jasotako portaera baizik, behinik behin, Euskal Herrian. Eskandinaviar herrialdeetan, esate baterako, harremana ezberdina dela ikusi dugu. Euripean jolastea bultzatu nahi dugu. Sentimendu eta sentsazio berriak bizitzea gustatuko litzaiguke, eta edozein egoera meteorologikotan baliabide gutxi eta xumeekin jolastu ahal izateko gaitasuna lortzea, beren sormena bultzatuz eta gizaki moldakor eta sortzaileak bilakatuz, beren etorkizunerako funtsezko bi gaitasunak baitira.

A: Edukiaz gain, itxuraz ere liburu berezia da... Nolakoa izan da ekoiztearen esperientzia?

N-A: Proiektu luzea izan da, eta ez da batere erraza izan hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, proiektuaren hasiera-hasieratik, harri-papera erabili nahi izan genuen. Guretzat ezinbestekoa zen liburu euriarrekiko erresistentea

izatea. Paper hori zoragarria da, baina aurkitzeko zaila eta garestia, bere inpresioa eta manipulazioa delikatuak baitira. Bigarrenik, bertako inprimategiekin lan egin nahi genuen arren, ezinezkoa izan da paper horren gainean esperientzia duen eta inprimatzeko prest dagoen euskal inprimategirik aurkitzea. Beraz, Kataluniara joan behar izan genuen. Zorionez, Lluís gure argitaratzaile baten bitartez, Joan ezagutu genuen eta proiektua kontatu genionean bitan pentsatu gabe parte hartu nahi izan zuen. Hirugarrenik, ekoizpen-prozesuan zehar konfinamendu-egoeran izan ginen, eta horregatik ezin izan ginen inprimategira joan probak egin bitartean bertan egotera; beraz, posta arrunta erabiliz, aurreikusitako denbora baino gehiago behar izan dugu. Eta, tira, prozesu luzea izan da mimo handiz egin nahi genduelako. Ekintza bakoitzak bere historia du, askok omenaldiak eta keinuak dituzte, eta maitasun handiz landu dira. Onartu behar dugu zaila izan dela gelditzea, asko (baina asko) kostatu zaigula, beti bururatzen baitzitzaizkigun xehetasun gehiago, keinu gehiago, baita ekintza gehiago ere. Baina objektu ukigarri bat egitea mirezgarria ere bada, bere hasiera eta amaiera baititu.

A: Esan dezakegu liburua ez dela soilik irakurtzeko, jolasteko objektu bat ere badela, ezta? Hala bada, irakurle-erabiltzaileak aipatzen dituzuen istorietan murgilduko dira ekintzak egin ahala?

N-A: Liburuak zirimiripean, eta oro har, euripean disfrutatzen 41 esperimentu ditu, eta ez du ordena zorrotzik. Errezeta-liburu bat bezalakoa da, nahi duzun errezeta erabili dezakezu, zure gogoaren, pertsona kopuruaren, testuinguruaren eta inguruko baliabideen arabera. Ideia hori indartzeko eta liburu esperimintazio horien laguntzaile izan dadin, checklist formatuko lauki batzuk jarri ditugu liburuko aurkibidean,



egindako ekintzak eta egiteke daudenak argi ikusteko. Hala ere, irakurlea, proposamen guztiak egin ahala, zirimiria maitale eta enbaxadore bilakatuko dala uste dugu.

A: Esan duzue liburua harri-paperean inprimatuta dagoela; guztiz iragazgaitza, euripean irakurtzeko eta erabiltzeko pentsatua. Nola erabiltzen da material hori?

N-A: Lehen esan dugun bezala, harri-papera urarekiko erresistentea da, % 100 iragazgaitza, eta uretan zein izotzetan murgildu daiteke, bere sendotasuna eta inpresioa kaltetu gabe. Karbonato kaltzikoz eta erretxina ez-toxikoz osatuta dago, beraz, paper ekologikoa eta iraunkorra da, eta ziurtagiri ekologikoa du. Gainera, oso leuna da. Oro har, urpekaritzarako erabiltzen da, eta gutxitan album ilustratueterako, baina euriari omenaldia egiteko ezinbesteko materiala zen.

A: Aurretik beste libururik argitaratu duzue?

N-A: Elkarrekin lehena da, baina azkena ez izatea espero dugu! Bestalde, Alexek aspaldi proiektu artistikoekin lotutako liburu batzuk argitaratu zituen.

A: Ekoizteko crowdfunding-a jarri zenuten martxan. Zer dela-eta? Nolako izan zen prozesua?

N-A: Guk ez genuen ekoizpenerako finantzaziorik, eta bietako inork ez zuen aurretik mikromezenasgo batean esperientziarik, baina oso ondo egokitzen zela iruditzen zitzaigun. Oso intentsoa izan da prozesua, eta halaxe bizi izan dugu! Proiektua aurrera ateratzeko 40 egun dituzunean, egunero sartzen zara diru-bilketa nola doan jakiteko... obsesibo samarra bihurtzen zara. Eta zer esanik ez erronka lortzeko epea amaitu aurreko egunetan, orduan erabat erotu egiten zara! Gainera, proiektua zabaltzea oso garrantzitsua da crowdfunding-aren aurretik eta hura martxan dagoen bitartean; «astuna» bihurtzen zara (kar-kar-kar). Lagunei idatzi genien, lagunak lagunak, lagunak lagunak lagunak... Instagram eta Facebook bitartez eduki asko elkarbanatzen

genituen, eta inork parte hartzen zuen bakoitzean izugarri pozten ginen.

A: Argitalpena crowdfunding bidez eskuratu zuten irakurle-erabiltzaileen kritikak jaso al dituzue? Nolako izaten ari da erabiltzaileen esperientzia?

N-A: Liburua oraindik ez da argitaratu, ekoizpen-fasean gaude. Hala ere, liburua haurrekin batera sortu denez, ekintza asko probatu ahal izan ditugu prozesuko hainbat etapatan. Gainera, pedagogoen, ilustratzaileen, kolaboratzaileen, familien, lagunak eta hainbat eremutako adituen (meteorologian edota eguraldi-lexikoan espezializatutako) laguntza izan dugu edukiak egiaztatzeko. Ekintza bakoitzak horien guztien ekarpena darama.

A: Non eskuratu daiteke liburua?

N-A: Anti Liburudenda, Garazi Liburudenda, Marrak Paperdenda eta Amphibiakids web orrialdean.

===